

Angeluko hitz neurtuak ez ziren bertsoak izan

EKAINAREN lehen egunean, goizean, Euskaltzaindiak jendaurreko bilera egin zuen Angeluko Udaletxean, han Beñat Oihartzabal akademikide berriari ongi etorria emateko. Jende asko bildu ginen han, merezimendu ongi eta aski frogatuak dituen euskaltzain berri eta gaztearen sarrera-ospakizuna ikusi eta zorianak emateko, eta, egia esan, ez genuen harainoko bidaia luzeaz damurik izan.

Alde batetik, bai Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren agur hitzak, Beñaten biografi argibideak eta bai Oihartzabalen beraren erantzun atsegina ere literatur hizaldien eredu bikainak izan ziren, hegoaldean, zoritxarrez, maiz aditzen ez ditugun horietakoak.

Baina hertsiki akademikoko dei genitzakeen ospakizun hauen landa ere, bazen besterik ere: V Mendiboure, Angeluko alkate «kaskoienaren» abegikortasuneko hitzak, eta Euskaltzainburuaren kontsiderazioak, euskarak, Iparraldeko erakundeen aldetik, oraino pairatzen duen egoerari buruz. Mintzaldi bi hauek frantsesek izan ziren, han zeuden mihibakarreko belarridunek ongi uler zitzaizten.

Haritschelharrek Euskaltzaindiaren eta beraren zereginen historia labur eta zehatza eskaini zien bertan ziren frantses agintariari, gehuztai, bide-seinale elebidunak Iparraldean ipintzeko eta gainerrak arazoetarako, Akademiaren lankidetzaz zintzoki eskaintzen. Baina kortesiako eta eskaintzako hitzkin batera, Euskaltzainburuak, hitzak neurtuz baina losintza eta xurikeriarik gabe, argi eta garbi planteatu zuen frantses Estatuan euskarak eta Euskaltzaindiak oraindik jasaten duten ezagutzarik eta laguntzarik eza.

Demokrazia eta eskubideen paradisu hexagonalak, noiztik behinkako hitz goxoak eta promes atseginak gora behera, praktikan ez du deus egiten bere azpian bizi den euskaldungoaren hizkuntza eta kultura orain duten baztertze-zulotik inen daitezen. Ironiko eta lagarriago da, benetan, gure

Akademiaren burua frantses hiritarra izan arren, Frantziak bera haintzat ez hartzea alde honetan, ordea, kargu horretan onartua den bitartean. *Nemo est propheta in sua terra*, dirudienek.

Frantziak, egia da, portaera zapaltzaile, kolonialista eta etnozida darabil bere azpiko herriekiko, ez baitu betetzen, katalan, euskaldun, bretoi, altsaziar, okzitaniar eta korsikarren hizkuntzei dagokionez Europako eskualdeetako edo eta gutxiengoaren hizkuntzen kartak dioena berak 1988ko Martxoaren 16an sinatua, hor hizkuntza horiek irakaskuntzan, administrazioan, komunikabideetan, kultur arloan, ekonomi eta gizarte bizitzan babestu, bultzatu eta erabiltzeko konpromezua onartu arren.

Baina egoera horren errua, lehenik eta nagusiki, frantses gobernu eta erakundeena delarik, ez dugu horregatik ahanzi behar hemengo ere dagokigun erantzunkizuna, ez baitugu egiten legez egiterik duguna, frantses agintariak behartzeko.

Badirudi Espainiako Gobernuak lankidetzakontuan Frantziakoarekin tratatzeko duen arazo bakarra terrorismoa dela, eta biek horretan segituko dute, noski, lehenengo politikari abetzaleek (?) horrez gainera, euskararen alde ere zerbaitegin ahal eta behar dutela gogorazten ez badiete behintzat, Konstituzioaren arauera, derradan bide-nabar. «Espainiako kultur ondare bereziki babesteko mintzaira» omen dena.

Izan, hortxe dugu, gure Autonomi Estatutuaren 6. artikulua 5.atala, honela dioena: «Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroriekin izan ditzaketan harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahaliko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuak inunak eta komenioak egin ditzala—edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskubidea ager dezan, be-rauek hura onartzeko— horretara euskara zaindu

eta bultzatzen». Bestalde, Europar Kontseiluak gutxiengoaren hizkuntzei harturikoko erabakiak, gorago aipatuak, hauxe dio bere 11. artikuluan: «11. art. Mugaz gaineko harremanak

Mugaz gaineko lankidetasunari dagokionez partaideek ondoko konpromezuak hartzen dituzte:

a) Estatu kide bi edo gehiagotan, modu berean edo antzerakoan, mintzatzen diren eskualdeetako edo gutxiengoaren hizkuntzen artean, muga gainetik, harreman bereziak mantendu eta geratuko dituzte; eta

b) Nazioz gaindiko aldaketa eta lankidetasun era guztiak Estatu kide bi gehiagotan, modu berean edo antzerakoan, mintzatzen diren eskualdeetako edo gutxiengoaren hizkuntzen alde erabiliko dituzte, kulturaren, irakaskuntzaren, lanbide-heziketaren eta etengabeko hezkuntzaren arlo guztietan».

Gasteizko Parlamentu eta Gobernuak, beraz, horretarako borondatek urteko gero behintzat, badute lege-oinarriak ipar Euskal Herriari, Haritschelharrek Angelun deitoratzen zuen egoera horretatik iriten laguntzeko.

Hamar urte baino gehiago iragan dira Autonomi Estatutua ibilian jarri zenetik eta Iparraldeko gure anaiarreen egoera larria gora behera, ez da inor gogoratu, antza, hemengoek hangoei eskua luzatzeko dugun ahalbide eta behar moralaz. Abertzalek bagara behinik behin; patriotismoa ez baita hitzez frogatzen egintan baizik. Eta gure laguntza oraintxe behar dute, euskara gaizki dagoenean, gaizkiago edo erabat hiliak egotean beranduegi izango da eta.

Beraz, on litzateke gure politikariek, orain arte erakundeetara joan arren Iparraldea ahantzia izan dutenek, eta orain Parlamentura joaten hastekotan omen daudenek ere, garrantzi handiko puntu hau ongi kontutan hartzea.

XABIER KINTANA

IDAZLEA

Esloveniar adiskideak

EUSKAL Herriaren tamainakoa da Eslovenia, lurraldez. Biztanlez, berriaz, milioi pare bat dira; eslovenieraz mintzatu, milioi eta zazpirehun bat lagun mintzatzen dira. Herri honek bere independentzia politikoa aldarrikatu du. Kroaziak bezala. Mendebal Europako estatuak asaldatu egin dira; eta hiru hilabetez atzeratu behar izan du bere aldarrikapena ekinzeara eramatea. Bitartean, krisia, larritasuna, Jugoslaviako armadaren eraso; eta gerraren txinparta gar bihurtzeko puntuan.

Herri honi buruz zerbaite idatzeko eskatu didate. Ez naiz arazo politiko-estrategiko handitan sartuko. Esloveniak bizi duen kinka larri baina itxaropentsu honetan, neure esloveniar adiskideez gogoratzen naiz bereziki. Horiengana eta esloveniar guztienganako simpatia handiaren adierazgarri izan nahi dute lerro hauek.

Duela hogeitabost urte ezagutu nuen neure lehen adiskide esloveniarrak; izatez nere irakaslea zen, baina adiskide bihurtu zitzaizkidan: Bruno Korosak. Beraren gidaritzapean egin nuen tesina aurrenik, eta tesia, geroago, Elizaren eta kultura ezberdinen arteko harremanari buruz. Hizkuntza eta kultura gutxituen defentsa izan nahi zuen, besteren artean. Eta irakasle esloveniarrak eta

ikasle euskaldunak elkar ondo ulertu genuela uste dut.

Tesiko oin-ohartzoren batean idatzia nuen, nola Herriek joera izan duten batzutan aberria edo arraza absolutizatzen: tribunaleko batek —holandarrak bera— zera idatzi zidan alboan: «Estate batarako, euskaldunak». Ez nuen aintzakotzat hartu ateraldia zozoa. Eta bere horretan aurkeztu eta argitaratu nuen tesia. Beraren oharra kanpoan utzia noski!

Beste zenbait adiskide esloveniar ere ezagutu nuen Erromako etxe hartan; Sunik, Papes, etab. Kroaziarrak askoz gainago ziren. Eta beti eduki nuen susmoa, serbiarren aurka alde bietakoek zuten erremiaz aparte, kroaziarrak eta esloveniarrak beren artean ere ez zutela kidetasun eta hurbiltasun handirik. Horrelako zerbaite gertatzen ari ote den orain ere, errepublika bakoitzak bere aldetik jokatzean!

Aspalditxo miesprenez eta inbiriz ikusten nituen Esloveniarrak, beren esloveniarzako telebisita-kate autonomoa bazutela, eta baita beren unibertsitatea ere esloveniaraz. Baina independentzia eskatzera heldu dira, beren naziotasunari eusteko.

Friul-en egoera sakontzen hasi nintzenezan ha-

rrituera geratu nintzen. Herriaren maparen ekialdean zirrinda bat zuriz uzten zutelako. Eslovenia-ko mendebaldeko lurraldea da, estatu italiararen menpean dagoena: Friul Herria, Esloveniako mendebaldea eta beste lurralde zabala Friuli-Venezia Giulia izeneko eskualde administratiboan sartu dira Italiak. Azken hogeitabost urte hauetan beste hainbat esloveniar hurbildik ezagutzeko aukera ona izan du, Ekialdeko errepublikakoak eta mendebaldeko eskualdekoak: Andrea Vallic, M. Ferruccio... Duela hiru bat urte G. Banchig ere ezagutu nuen Sardinian; Dom astekariaren zuzendaritzakoa da. Orduetik hona astero-astero bidaltzen dit bere aldizkaria, italiaraz eta esloveniaraz idatzia. Azken zenbakietako bateko editorialak honako gain-titulua du: «Italiya. Jugoslviya. Sloveniya. Europa»... Deigarria izenen segida gaurko arazoari begira; baina hortik aurrera ez titulua eta ez bestelako lerrorik ulertu dit ezer.

Hala ere, gogoangarriak zaizkit esloveniar adiskideak. Beraie agurrrik bihozkekoena orrialde honetatik.

PAULO AGIRREBALTZATEGI

IDAZLEA

BERRIAK ZIRI



JAVIER SOLANA
Espainiako Hezkuntza eta Zientzia ministroa
EL PAIS
1991-VII-19

«Gurasoek

nahi ez dutenean beren seme-alabei eskolan erlijioa irakas diezaieten, ez da bidezkoa artzapezpikuek erabakitzea zer egin horren ordez»



JACQUES ATTALI
Berreraikuntza eta Garapenerako Europako Bankuko zuzendaria
EL MUNDO
1991-VII-19

«Munduan

nagusi diren bi instantziak, Segurtasun Batzordea eta Zazpientaldea, ezin dira banandu»



RAFAEL DE LA CRUZ
Espainiako Gobernuoko Defentsa Saileko Estatu idazkaria
DIARIO 16
1991-VII-19

«Soltxaga

ministrotok agindu aurrekontu murrizketak, larriak eta oso garrantzitsuak dira Defentsa Ministeritzarako»



JORDI PUJOL
Katalunako Generalitateko lehendakaria
LA VANGUARDIA
1991-VII-19

«Europa

eraikitzeako markoaren barruan, erregionalismoak ez du nahi estatuekin enfrentatzerik»

ZAKILIXUT

© Olariagaq



OSASUN SAILA
(Osakidetzak)

LEHIAKETA PUBLIKOA, «Hainbat moztetako anti-sorgailuren erosketak» kontratatatzeko.

Espediente zk.: 110/20/1/00049/9999/0491.

Kontratuaren xedea: «Hainbat moztetako anti-sorgailuren erosketak».

Lehiaketaren aurrekontua: 15.258.000 PTA.

